

Pasaiak ipuin kontaketa bereziak ditu

Arabieraz eta euskaraz azalduko dituzte istorioak. Emanaldiak gaur 17.30ean hasiko dira Donibaneleko liburutegian 'Pizgailu magikoa' antzezlanarekin

PASAIA. Ekainaren 1ean Euskal Herriko anitzasunaren eguna ospatu zen, gauzak horrela Pasaiako udaleko liburutegiek datozen egunetan lau barrutietan antzezpen batzuk antolatu dituzte, herriko haurrek eta gurasoek goza ditzaten. Ipuin kontaketa hauek bereziak izango dira Baraka taldeak euskaraz eta arabieraz azalduko baititu.

Bi ipuin desberdin entzuteko aukera egongo da. Gaur bertan Donibaneleko liburutegian 17.30ean Hans Christian Andersen idazle ospetsuaren Pizgailu magikoa eskainiko da. Lan berbera bihar San Pedroko liburutegian entzun ahal izango da 18.00etatik aurrera.

Bigarren istorioak Nasrudin eta bere astoa izenburua du eta hurrengo astean irudikatuko dute. Izan ere, ekainaren 11n, Baraka taldea Trintxerpeko alkateordetzan izango da eta hilaren 13an emanaldia Antxoko liburutegian errepikatuko du. Bi saioak 18.00etan izango dira.

Honela, Pasaiako alkateak, Amaia Agirregabiriak, Euskal Herriko anitzasunaren eguna ospatuko dutela adierazi du, 'herria askotarikoa dela agertzeko, nahiz eta hori Pasaien ez den berria, izan ere jatorri askotariko jendeak osatzen du herri hau'. 'Pasaiako kaleetan euskaraz gain, hizkuntza asko entzun daitezke: galegoa, portugalera, gaztelania, arabiera..., jatorri asko daudelako', gaineratu du.